



LA OREJA DE VAN GOGH, RAPHAEL, WE ARE STANDARD, FANGORIA, THE WATERBOYS, MIGUEL RIOS ROSANA BAKARLARIAREKIN, SKA-P, ZARAMA, THE CHERRY BOOPERS, LA EXCEPCIÓN, DESPISTAOS, LOS SECRETOS, INTI ILLIMANI EDO GATIBU 2009KO ASTE NAGUSIKO 90 MUSIKA EMANALDIETAKO BATZUK

Bilbao, 2009ko ekainaren 22a. Aurtengo Aste Nagusia gero eta hurbilago dago. Joan den ostegunean berau iragarriko duen kartela aukeratu ondoren, **abuztuaren 15a eta 23a** bitartean garatuko den 2009ko Aste Nagusirako Bilboko Udaleko Turismo eta Jaietako Sailak antolatu dituen musika emanaldiak ezagutzeko garaia heldu da.

Musika programazioa izan da betidanik Bilboko Aste Nagusiaren ezaugarri bereizgarrienetako bat. Estilo aniztasunak, kontzertuen kantitateak, artisten kalitateak (lehen mailakoak beti) eta **gehienbat musika emanaldien doakotasunak** egin dute musika programazioa aste horretako erreferente eta hirian zehar zabaltzen diren zortzi eszenatokiak aste horretan bilgune.

Aste Nagusiko alde garrantzitsuetako bat eszenatokien musika espezializazioa da, Bilboko jaien eskaintza anitza eratzen duena. Honela, publikoak espazioak musika motaren arabera identifikatzen ditu, hau da:

- Botika Zaharra: Musika formatu handian
- Abandoibarra: Tamaina ertaineko kontzertuak
- Plaza Barria: Munduko Musikak
- Gizakundea: Musika jaso
- Bailen: Bertoko pop-rocka
- Parkeko Pergola:goatekeak eta bilbainadak
- Areatzako Kioskoa: Bilboko Udal Banda
- Areatza: Berbenak, bandak eta fanfarriak

Lehen mailako eta gustu guztietarako musika programazioa eskainiko dute aurreko zortzi eszenatokiok. Izan ere, **LA OREJA DE VAN GOGH, RAPHAEL, WE ARE STANDARD, FANGORIA, THE WATERBOYS, MIGUEL RIOS ROSANAREKIN, SKA-P, ZARAMA, THE CHERRY BOOPERS, LA EXCEPCIÓN, DESPISTAOS, LOS SECRETOS edo GATIBU**, bezalako artista eta taldeak ikusteko aukera izango da, musika eskaintza anitza eta erakargarria osatuz.



Botika Zaharra

Aurten zortzigarrenez Botika Zaharreko makroespazioa izango dugu 2009ko Aste Nagusian, musika emanaldi nazionalak eta internazionalak hartuko dituen Bilboko musika eremu handia.

SKA-P madrildarren itzulerarekin irekiko da aurten Botika Zaharreko programazioa. Sei urte egin dituzte estudio-diskorik atera gabe eta hiru urte eszenatokietara igo barik. Baina SKA-Pko mutilak itzuli egin dira, disko berriarekin ("*Lágrimas y gozos*", 2008) eta betiko energia eta jarrerarekin: *sistemari potroak ukitzera*.

Udako jaialdi zaporea eta Bizkaiko Jatorri izendapena duen kontzertu hirukoitzak beteko du abuztuaren 16ko gaua. **MAMBA BEAT** bizkaitarren *house funk* soinuak irekiko du emanaldia eta jarraian **ZODIACS** Getxoko madrildar hirukotearen kontzertuaz goatzeko aukera egongo da. Fito & Fitipaldis-ekin batera egindako bira erraldoiaren ondoren 3,2,1...disko berriarekin datoz **ZODIACS** taldekoak. Mantsotasunik gabeko riff-ez beteta, lelo zigortzaileak, amorru doinu hutsak eta kontrakorrante sentsazio maitagarria erakusten du hirukoteak, *indie* munduan sartuta egon arren, mundu horretan bertan beren kontura doazela erakusten duen zuzentasun politikorik eza islatuz, alegia. Eta, gaueko emanaldi nagusia: Benicassim-en Oasis taldekoekin eszenatoki berdean aritu ondoren, **WE ARE STANDARD** talde mutilak gaueko jaun eta jabe egingo dira, izen bereko diskoa aurkeztuz. Gang of Four-eko Andy Gill produktore lanetan ibili da eta Londresen grabatu dute bigarren lan hau, Dantzatzera, taldeak proposatzen dizunarekin goatzera, bultzatzen zaituzten bederatzi abesti, gustatu edo ez kutsatzen zaituzten erritmoak. Pentsatzea albo batera utzi eta eramaten uzteko moduko diskoa, getxotarrentzat 2009ko Musika Sariatari Rock Alternatibo Diskorik Onena izateko hautagaitza.

Abuztuaren 17an, astelehenean, Botika Zaharreko beste emanaldi nagusienetako baten txanda izango da: **LA OREJA DE VAN GOGH**. *A LAS CINCO EN EL ASTORIA* da taldearen lanik berriena, Leire Martinenez ahotsarekin atera duten lehena, eta lanak ez die jarraitzaileei utzik egin: platinozko diskoa Espainian, urrezko diskoa Txilen eta Urrezko diskoa Venezuelan. *El último vals*, *Inmortal*, *Europa VII* edo *Jueves* bezalako abesti ezagunekin dator lana.



Gaztetxoenek gehien itxarongo duten beste egunetako bat asteartea izango da, abuztuak 18. Egun horretan **DESPISTAOS** taldekoak igoko dira Botika Zaharreko taula gainera eta bertara gerturatzen direnak dantzan jarriko dituzte. "FÍSICA y QUÍMICA" telesail ezagunaren musika are ezagunaren egileak dira gazte hauek eta "LO QUE HEMOS VIVIDO" diskoarekin datoz Bilbora, arrakastak biltzen dituen lana.

Abuztuaren 19an, asteazkenean, hip-hop doinuak izango dira nagusi. **ARIANNA PUELLO (ARI)** rapera gazteak irekiko du eszenatokia, estatu mailako hip-hop esparruan errealitate sendoetako bat. Jarraian **LA EXCEPCIÓN** taldekoen txanda izango da, Juan Manuel Montilla 'El Langui' ren taldearen txanda. 2009ko Goya Sarietako irudietako bat izan zen madrildarra, *El truco del manco filmarekin errebelazio aktorearen saria jasotzean*. 'El Langui', Dako eta Antón (La Excepción) "*La Verdad más Verdadera*" lanarekin datoz Bilbora, kritikaren alde eta errealitate sozialarekiko konpromisoaren alde egiten duen lana berriarekin.

THE WATERBOYS taldekoak ostegunean, abuztuak 20, igoko dira Botika Zaharrera. 1983an sortu, 1993ean desagertu eta 2000.urtean birsortu egin zen Mike Scott-en taldea. Errepertorio zabala eskainiko dute taula gainean, lehen lanetako "The Big Sound" izeneko horretatik desagertu aurretiko lanetako zeltar eraginetatik pasa eta itzulerako egungo rock soinetara doan errepertorio zabala. *Klase Ikutua* Bilboko gauean, The Decembrist-eko Colin Meloy, Feeder-eko Grant Nicholas edo o The Wonder Stuff-eko Miles Hunt bezalako artistengan eragina izan duen *Touch of class-a*. n

Abuztuaren 21ean, ostiralean, Bilbok agur esango dio **MIGUEL RIOS** abeslariari ez oso gau berezi batean, andaluziarra ez baita bakarrik egongo eszenatokian. Orain 30 urte inguru Txurdinagan eskainitako kontzertu mitikoaren ondoren (2005a arte emanaldirik jendetsuena izan zen hau Aste Nagusiaren historian) rock abeslaria berriz ere Aste Nagusira itzuliko da bere agur-biran. "*Memorias de la carretera*" tour honekin esango die agur andaluziarrak eszenatokiei mende Erdiko musika ibilbidearen ondoren. Ibilbide luze horretan publikoaren eta bere kideen maitasuna irabazi egin du, eta horren adibidea Espainiako hogeina musikaririk "*Bienvenidos*" diskan egin dioten omenaldia. Miguel Riosen arrakastak biltzen ditu lanak, eta horiekin gozatzeko aukera izango dugu 2009ko Aste Nagusian. Oraingoan Botika Zaharrean eta behar bezalako lagun batekin: **ROSANA** kanariar abeslariarekin batera egingo du Riosek emanaldia, duda barik kontzertu errepikaezin batean.



LOS SECRETOS taldekoekin bukatuko da aurtengo Botika Zaharreko programazioa. Hogei eta hamar urte baino gehiago bete ditu dagoeneko estatuko pop rock talde honek, eta momentu latzak bizi izan dituzten arren, *hirugarren bizitza bati* ekin dio taldeak. Moda ezberdinetatik alde egin eta beren doinu propioan murgildu izan dira, imitatu ezinezko soinu atemporalak sortuz eta Espainiako pop abestirik onenetako batzuk sortuz: *Pero a tu lado*, *Gracias por elegirme* edo *Déjame* bezalako soinuak berriz ere abestuko dira “*Gracias por Elegirme*” biran, 2009ko Aste Nagusira ere badatorren biran.

ASTE NAGUSIA 2009: BOTIKA ZAHARRA

BOTIKA ZAHARRA 24:00	
LARUNBATA 15	SKA-P
IGANDEA 16	WE ARE STANDARD + ZODIACS + MAMBA BEAT
ASTELEHENA 17	LA OREJA DE VAN GOGH
ASTEARTEA 18	DESPISTAOS
ASTEAZKENA 19	ARIANNA PUELLO (ARI) + LA EXCEPCIÓN
OSTEGUNA 20	THE WATERBOYS
OSTIRALA 21	MIGUEL RIOS
LARUNBATA 22	LOS SECRETOS

Abandoibarra

Guggenheim Museoaren itzalpean kokatuta dagoen kontzertuetarako espazioa da Abandoibarra, eta aurten ere lehen mailako era askotariko programazio izango du.

Abuztuaren 15ean, larunbatean, eta Euskal Musika zaletuen gozamenerako, Antton Valverde, Gorka Knörr, Gontzal Mendibil, Iñaki Eizmendi, Urbil & Txomin Artola, Mixel Ducau (Errobi), Niko Etxart... bezalako musikariek irekiko dituzte eszenatokia **GU GIRA** ikuskizunarekin.

Igandean, abuztuak 16, akordeoi zaletu guztiek hitzordua dute Abandoibarran **BILBOKO AKORDEOEN ORKESTRA SINFONIKO**aren emanaldiarekin. 1963an sortu zen Orkestra, eta gaur egun Amagoia Loroñok zuzentzen du, taldearen sortzaile Josu Loroño maisuaren alabak. Gurean aitzindari,



akordeoiaren bertutetsuek osatzen dute eta bere jeneroan Europako akordeoi orkestra onenetakotzat hartzen da.

2009 honetako bi euskal talderik arrakastatsuenetakoen euskarazko erritmoekin beteko dira Guggenheim museoaren inguruak astelehenean, abuztuak 17. Jardunaldia **SEIREN** euskal pop rock talde gaztearekin hasiko da. Zazpikote honek publikoa liluratzea lortu du "*Pertsona baten bila*" lehen lanarekin. Hurbileko unibertsoa erakusten digute bertan, modu natural eta zintzoarekin eguneroko bizitzako sentimendu eta desirak adierazteko zeltar tanketarako doinuak erabiliz. Pop-folk doinuen ondoren euskarazko rocka izango da nagusi **GATIBU** taldearen eskutik. Alex Sardui (*Badator Marijaiaren* ahotsetako bat) abeslariaren taldea "*Laino guztien gainetik eta sasi guztien azpitik*" birarekin dator Aste Nagusira, eta, beraz, zuzenean gozatu ahal izango dugu 2009ko Gaztea Sarietako irabazleetako batekin: diskarik onena "*Laino Guztien Gainetik, Sasi Guztien Azpitik*" eta abestirik onena "*Bang-Bang Txik-Txiki Bang-Bang*".

Abuztuaren 18ko gau euskarazko rock doinuetako nostalgikoei egongo da bereziki zuzendua, bi talde mitiko eta bi bira errepikaezinekin gozatzeko aukera izango baitute. **AKELARRE**ekin hasiko da gaua, Euskal herriko musika talde ospetsu eta legendarioetako bat. Orain 5 urte eszenatokiei agur esan bazieten ere, 33 urteko ibilbide luzeko arrakastak bildu eta bira berezia egitea erabaki dute. Jarraian **ZARAMA** santurtziarren txanda izango da, euskaraz abestutako rock & rollaren aitzindarien txanda. 15 urteko isilunearen ondoren, Zarama eszenatokietara itzuli egin da, **ZARAMA BIRZIKLATUAREN BIRA**ekin. Aukera paregabea garai batekoak gogoratzeko... edo lehen aldiz ezagutzeko.

Asteazkenean, abuztuak 19, **FONDO FLAMENC**oko gazteekin izango da hitzordua, azken urteotako musika fenomenoetako bat bihurtu diren mutilak. Adinez nagusi juxtu-juxtu eta hiru sevillar hauek pop ona egiteko gai direla erakutsi dute "*LAS CARTAS SOBRE LA MESA*" bigarren lanarekin. Hiri lengoia, eta erritmo eta tonalitate nahasketa bikainak.

RAPHAEL, musika munduko klasiko handia, gurean izango da abuztuaren 20an, ostegunean, **RAPHAEL: 50 AÑOS DESPUÉS** lanean bildu dituen betiko arrakastekin. Mitomanoentzako eta Bilbo eta inguruetakoa andreentzako galduezinezko hitzordua.



Ostiralean, abuztuaren 21ean, **FANGORIA**ren txanda izango da. Alaska eta Nacho Canut Bilbora datoz Abandoibarra dantzarako pista erraldoia bihurtzeko helburuarekin. Eta, eurekin batera, Mario Vaquerizo eta bere **NANCYS RUBIAS**-ak.

Azkenik, abuztuaren 22an, Bilboko Orkestra Sinfonikoak **ITOIZ SUITE** ikuskizuna eskainiko du. ITOIZen musika inspiratu zuen rock estetika mantendu eta orkestra sinfonikoaren lengoaia propioetara egokitzeko Juan Carlos Perezek banda mitiko honen arrakastak berridatzi ditu. ITOIZ rock taldearen musikaren inguruan egindako bariazio sinfonikoak Abandoibarrako programazioarekin bukatzeko.

ASTE NAGUSIA 2009. ABANDOIBARRA 23:30

ABANDOIBARRA 23:30	
LARUNBATA 15	GU GIRA
IGANDEA 16	BILBOKO AKORDEOIEN ORKESTRA SINFONIKOA
ASTELEHENA 17	SEIREN + GATIBU
ASTEARTEA 18	AKELARRE + ZARAMA
ASTEAZKENA 19	FONDO FLAMENCO
OSTEGUNA 20	RAPHAEL
OSTIRALA 21	NANCYS RUBIAS + FANGORIA
LARUNBATA 22	ITOIZ SUITE (ITOIZ BOSak INTERPRETATUA)

Plaza Barria

MUNDUKO MUSIKEN erakusleihu eta publiko fidel eta jantziarentzat erreferentzia izango da aurten ere Bilboko plaza arkupetua.

Larunbatean, abuztuak 15, **THE CHERRY BOPPERS** bilbotarrek estreinatuko dute eszenatokia, dantzarako musika beltzaren klasikoekin eta zuzenekoetan plazaratzen duten freskotasun, bizitasun eta *rollo onarekin*. Gau horretan ere **JAVIER VARGAS** madrildarra igoko da taula gainera, eta *blues gitarraren* eta



afroamerikar sustraia duten soinu zaletuen gozamina izango da nazioarteko musika esparruan adierazgarri den musikari honen emanaldia.

Igandean, abuztuaren 16an, **INTI ILLIMANI** taldearen Txileko doinuekin beteko da Plaza Barria. Zortzi musikarik osatzen dute taldea eta dagoeneko beren herriko musika folklorikoan klasiko egin dira.

Euskarazko doinuak astelehenean iritsiko dira **RAFA RUEDA**ren eskutik. *Zuhaitz okerretan gora NOA* disko berriarekin datorkigu Bizkaitarra, bakarlari gisa plazaratu duen hirugarren lana. Flamenko doinuak ezin falta Munduko Musiken hautaketa honetan.

Aurten flamenko munduan tradizio handienetakoa duen andaluziar klana izango dugu geurean: **MONTOYA FAMILIA**. Asteartean, abuztuak 18, igoko dira Montoyatarrak Plaza Barriko eszenatokira eta sustraidun flamenko doinuen eta berrikuntzaren arteko nahasketa bereizia eskainiko dute.

Eszenatokia bete eta publikoa dantzan jarriko duen beste talde bat **FANFARE CIOCARLIA** fanfarrea edo Errumaniako metal orkestra izango da. Balkanetako folkloreak eta rumba, folka eta pop doinuen arteko fusioa ekarriko digute, festa giro bikainean. Asteazkenean izango da hori, abuztuaren 19an.

Eta, hurrengo egunean Galiziara egingo dugu bidaia de **MERCEDES PEON**ekin batera. Emakume magikoa da Peon, berezko ahotsa, indar, sentimendu handia eta oso estilo berezia duena. Izan ere, zeltar tradizioa eta Galiziako gaitak rock eta doinu elektriko berriekin uztartzen ditu.

TROVEROS DE ASIETA, kubatar erritmoak lantzen dituen kanariar taldea ere hurbilduko zaigu Plaza Barrira abuztuaren 21ean, ostiralean.

Eta, **BILBO REGGAE SPLASH**aren XVII. edizioarekin bukatuko da aurtengo programazioa. Aurten, **TWINKLE BROTHERS** taldea izango dugu, Norman Grant buru duen Roots Reggaearen talde adierazgarrietako bat.



PLAZA BARRIA 2009 MUNDUKO MUSIKAK 24:00

PLAZA BARRIA 24:00	
LARUNBATA 15	THE CHERRY BOPPERS (EUSKADI) + JAVIER VARGAS (MADRID)
IGANDEA 16	INTI ILLIMANI (TXILE)
ASTELEHENA 17	RAFA RUEDA (EUSKADI)
ASTEARTEA 18	FAMILIA MONTOYA (ANDALUZIA)
ASTEAZKENA 19	FANFARE CIOCARLIA (ERRUMANIA)
OSTEGUNA 20	MERCEDES PEON (GALIZIA)
OSTIRALA 21	TROVEROS DE ASIETA (KANARIAK-LATINOA)
LARUNBATA 22	TWINKLE BROTHERS (JAMAICA- REGGAE)

Gizakundea

Beste behin Atxuri izango da musika jasoaren zaleen gotorlekua, arratsaldero, 20:30etatik aurrera.

GIZAKUNDEA 2009 MUSIKA JASOA 20:30

GIZAKUNDEA 20:30	
LARUNBATA 15	BERNARDO GARCÍA HUIDOBRO (BAKARKAKO GITARRA)
IGANDEA 16	RAQUEL ANDUEZA & JESÚS FERNÁNDEZ BAENA (ITALIAKO XVII.MENDEKO MUSIKA PROFANOA).
ASTELEHENA 17	SPANISH BRASS LUUR METALLS (FAMILIA GIROKO KONTZERTU PEDAGOGIKOA)
ASTEARTEA 18	KEA AHOTS TALDEA (KORU MUSIKA)
ASTEAZKENA 19	CUARTETO ALMUS (BIOLINAK, BIOLA, BIOLONTZELO)
OSTEGUNA 20	NAROA INTXAUSTI, MARIFÉ NOGALES Y MARÍA VEGA (KONTZERTU LIRIKOA)
OSTIRALA 21	PAOLA ERDAS-SHYAMAL MAITRA (KLABE, EXAQUIER ETA TABLA)
LARUNBATA 22	NUOVO QUINTETTO ITALIANO ("DE MOZART A MASCAGNI")



Pergola

Programa bikoitza parkean. Goizez bilbainadak talde mitikoekin: **BETI AURRERA, LOS TXIKIS, LOS 5 BILBAINOS, IRRINTZI, IÑAKI Y JESÚS M^a** eta **GAU PASA**. Eta, gauez, **HABANERAK, MARIACHIAK, GOATEKE NOSTÁLGIKOAK** ETA **IKUSKIZUN BILBOTAR PETO-PETOAK**. BARCA DE MITJANA ETA EL CORO DE IRALABARRI taldeek beteko dute habaneraz Bilboko gaua; *Mariachientzako* espazio ere izango da **DOLORES SAN JUAN** eta **EL MARIACHI TEQUILEÑO**ekin; **LOS PUNTOS, JEANNETTE, LOS MITOS** eta **KARIN**aren eskutik Pergola 60 eta 70.hamarkadako Goateque erraldoia bihurtuko da; eta, ezin falta **ASIER BILBAO**. Gainera, **ORQUESTA PERGOLA** edo **DJ' GUATEQUESI**.-ek dantzan jarriko dute publikoa suen aurretik eta ondoren.

OHARRA: Informazio gehiago edo argazkirik behar baduzue, Aste Nagusiko prentsa bulegora jo dezakezue